



# TXIKITTO!

2023ko urria 218. zenbakia



## KLIMA-ALDAKETAREKIN ESPERIMENTATZEN

# AURKIBIDEA

TXISTEAK .....	3	DENBORAPASAK .....	11-13
IKASLEEKIN .....	4-5	LEHIAKETA .....	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI .....	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA .....	15
AITXITXA-AMAMEKIN. .	8-9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			
SUKALSANTSAN .....	10		

 **eta kitto!**  
euskara elkarteak

**Argitaratzailea**  
“...eta kitto!”  
Euskara Elkarteak  
Urkizu, 11  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776

**Erredakzio-  
kontseilua**  
Maidar Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak

**Administrazioa**  
Marisol Uriarte

**Erredakzioa**  
Maidar Aranberri eta  
Ekhi Belar

**Ikusentzunezkoak**  
Yanire Sagredo

**Azaleko argazkia**  
Aldatze

**Copyright-a**  
Txikitto!

**Lege-gordailua**  
SS-1111/96





Zikoina batek 15 urteko ume bat darama eta umeak esaten dio:

- Onartu beharko duzu galduta zabiltzala.



RIIIIIIING!!!

- Bai, esan?!

- Agustin al dago?

- Ez! "Incomodin" nago.

Andereñoak Aitorri:

- Esaidazu nola banatuko zenituen 3 patata 10 lagunen artean.

- Oso erraz, andereño! Parea egiten!



Epaiketa batean epaileak galdetzen dio epaituari:


- Eta, nola konpondu zinen kutxa gogorra 15 minututan irekitzeko?

- Epaile jauna, barkatu, baina nik ez ditut klaseak debalde ematen!

Kartzelara iritsi berria den batek galdetzen dio beste bati:

- Eta zu, zergatik zaude hemen?

- Ez didatelako ateratzen uzten!



Gizon bat sartzen da harategira eta esaten dio harakinari:

- Emango didazu txerri buru hori, mesedez!

Harakinak erantzuten dio:

- Barkatu, gizona, baina hori ispilu bat da!





# KLIMA-ALDAKETA ESPERIMENTUEKIN



BIDEOA



Aldatze ikastetxeko ikasleek klima-aldaketaren gaia landu dute eta, horretarako, Mad Science proiektuko kideak egon ziren eskolan. Hainbat esperimentu egin zituzten eurekin eta, horrela, hobeto ulertu ahal izan zituzten klima-aldaketaren nondik norakoak.

**Carla Pinilla,**  
11 urte



Orain dela aste batzuk esperimentu batzuk egin genituen Mad Scienceko lagunekin, klima-aldaketa hobeto ulertzeko. Tania izeneko neska bat etorri zen eta bere eskutik egin genituen esperimentuak.

**Lisset Dilone,**  
11 urte



Esperimentu asko egin genituen, baina bat aipatzekotan, Fairy xaboa, karbono dioxidoa eta ur beroa erabili genuena azpimarratuko nuke. Esperimentu horretatik kea eta burbuila moduko batzuk irten ziren, eta burbuilak apurtuz gero, ke gehiago irteten zen.



**Kerman Iraolagoitia,**  
10 urteE

Ingelesezko 'mad science'-k 'zientzia eroa' esan nahi du euskaraz. Mad Science zientzia egiten duen enpresa bat da eta eskoletara joaten da hainbat gai lantzeraz zientziaren bitartez: kutsadura, klima-aldaketa... Horrela, ikasleek gauza gehiago ikasteko aukera dute.



**Luken Levis,**  
11 urte

Esperimentuak gauza askorekin egin genituen. Adibidez, Fairy xaboia, ur beroarekin, karbono dioxidoa, ur beroa eta ozpina erabili genituen. Horrela, gauza interesgarri asko irten ziren egindako esperimentuetan.



**Naia Mejuto,**  
11 urte

Beste esperimentu batean ur hotza eta beroa erabili genituen. Bertan, ikusi genuen ur beroa gora joaten dela, eta horrek esan nahi du autoen kea, hau da, karbono dioxidoa, gora joaten dela, atmosferara.



**Oier Arrizabalaga,**  
11 urte

Esperientzia honetatik gehien gustatu zitzaiguna izan zen esperimentuak taldeak egin izana. Taldean egiteko esperimentu baten Fairy xaboia, izotz lehorra eta ur beroa erabili genituen, eta horretarako, ur beroa katilu baten sartu behar zen, gero izotz lehorra eta ondoren Fairy. Horrela, mugituz gero, kea eta gauza asko irteten ziren nahasketatik.



## ARRATEKO ANDRA MARI

Hemen gaude berriro ikasturte berria gogoz hasteko prest! Hilabete honetan jada izan ditugu hainbat ekintza, besteak beste 3. ziklokoko ikasleak irailleko azken astean, soinketako saioan, mendi irteeratxoak egin zituzten. 6. mailako ikasleak irailaren 27an "Andretxea" ezagutzera joan ziren, irailaren 29an "Asteklima" tailerrak izan zituzten eskolako aretoan eta urriaren 2an "Farmer Fish" saio birtualak. Urriaren 31n, 1. eta 2. zikloetako ikasleak Coliseora joango dira "Izurde mutikoa" filma ikustera. Ikasturtean zehar egingo ditugun ekintza, irteera eta abar antolatzen ari gara. Joango gara zuei kontatzen!



## URKIZU

Ikasturte berria jolastoki berria estreinatuz hasi genuen. Ondoren 5. eta 6. mailakoak "Andretxea" ezagutzera joan ziren, eta beso zabalik hartu zituzten bertan. Arraterara ere joan ginen LHko ikasle guztiak eta primeran pasatu genuen eguna. LH 6. mailakoek aldaketa klimatikoaren inguruan hausnarketa egiteko "Aste klima" landu zuten esperimintuen bitartez. Urriaren hasieran LH5 eta LH 6 mailakoek ere irteera egin zuten Urkiolara basoko fauna eta landaretza ezagutzera. Bestalde, formakuntzak ere izan ditugu eskolan: gurasoentzat, Nerea Mendizabalek eskainitako mugen inguruko hitzaldia eta irakasleentzat OAOA matematika manipulatioaren formakuntza.

## LA SALLE

Irailaren hasierarekin batera eskola ere hasi da. Normaltasunaren beharra somatzen hasita zegoen ikasleen artean. Txikien artean egokitza-penaren negarrak pasa eta gero hasi dira jolasak eta algarak. Betiko moduan, kurtsoari hasiera ona emateko Arratera txangoa egin dugu. Handienak oinez, txikiak autobusez. Eguraldi zoragarriarekin igaro genuen eguna. Irailaren 27an, LH3koak Donostiara joan ziren Zinemaldira. Alfonbra gorria zapaltzeaz gain, filme bat ikusi zuten eta hondartzatik paseatzeko aukera ere izan zuten.







## ITURBURU

Juan Antonio Mogel Ikastolako 6. mailako ikasleak Zuhatzako uhartera joan ziren irailaren 20, 21 eta 22an. Bertan, pedalo, surf, optimist eta piraguan oso gustora ibili ziren eta egun ederrak pasa zituzten. Bestalde, 4. mailakoak Irisarriandera joan ziren irailaren 26an eta 27an eta ur-jolasetan, Olinpiadan eta oka-jolasean aritu ziren eta tirolina probatu zuten. Horrez gain, zentzumenen basoa ere ezagutu zuten. Dena izan zen zoragarria!



## AMAÑA

Urtero egiten dugun moduan, aurten ere, ikasturteari hasiera emateko, irailaren 25ean, astelehena, Arratera igo ginen lehen hezkuntzako ikasleekin. Nahiz eta igoera gogorra izan, behin bertan, primerako eguna pasatu genuen. Ikasleak jolasean eta dantzaz igaro zuten eguna. Gainera, argazkian ikus dezakezuen moduan, hamaiketako bikaina egin genuen Kalamuako lautadan. Datorren urtean, berriz!

## SAN ANDRES

Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak Zuhatzako uhartera (Araba) joan ziren iraila amaieran. Zuhatzara iristeko itsasontzia hartu genuen eta batzuentzat itsasontzian ibiltzen ziren lehen aldia izan zen. Hiru egunetan ur ekintzak (pedalo, optimist, piragua, arrauna, windsurf...) eta jolasak eta kirolak egiteko aukera izan genuen. Zuhatzan primeran pasatu genuen, ikasle eta irakasleen arteko harremanak sendotzeko eta euskararen erabilera eskolaz kanpo bultzatzeko ekintza aproposa izanik.



## ALDATZE

Ikasturtea behar bezala hasteko Aldatze ikastetxeko HH eta LHko ikasleek Arratera egin zuten txangoa. Egun ederra pasatu zuten, eta bero-beroa ere bai. Egun batzuk geroago LH 4-5 eta 6. mailakoak igo ziren eta orduan ere eguraldi bikaina izan zuten lagun. Zoragarrri pasa zuten Arrate puntan!



**Lurdes Mallagarai:**

# «Umetan patinetan jaisten nintzen Urkitik eskolaraino»



**Amama Lurdes elkarrizketatu dute San Andres eskolan Inharrek eta Udaik. Amamak berak ere ikastetxe berean ikasi zuen gaztetan. Patinetan jaisten zen Urki auzotik eskolaraino. Beste sasoi bat zen. Hamaika kontu kontatu dizkie ilobei hiruren artean izan duten solasaldi polit honetan.**

**Kaixo, amama, zer iruditzen zaizu esperientzia hau?**

Zoragarria da zuek biok niri elkarrizketa egitea. Oso pozik nago.

**Noiz eta non jaio zinen?**

1958ko martxoaren 25ean Donostian, baina Eibarren bizi izan naiz betidanik.

**Zenbat zineten etxean?**

4. Gurasoak, neba eta ni.

**Nola banatzen zenituzten etxeko lanak?**

Dena egiten genuen denon artean. Ohea egu-nero eta gauza bakoitza bere lekuan gorde-tzen genuen, aitak esaten zuen moduan.

**Zelan gogoratzen duzu eskolako sasoiak?**

Nostalgiaz. Hemen ikasi nuen, San Andres eskolan. Oroitzapen onak ditut. Ez dauka zerikusirik gaur egungoarekin. Irakasleak zorrotzagoak ziren. Eta besteekiko errespe-tu gehiago genuen.

**Eta nola gogoratzen duzu haurtzaroa?**

Oso oroitzapen onak ditut. Beste era batera bizi ginen, libreago edo... Adibidez, ka-lean ez zegoen ia kotxerik eta lasai ibiltzen ginen. Gauza txarrak ere bazeuden, gaur egun "bullying" deitzen zaiona. Nik ez nuen sekula jasan, baina beti izan naiz sufritzen dutenen defendatzaile sutsua.

**Nolako ikaslea izan zinen?**

Nahiko ona, batez ere matematiketan. gtik gorako notak ateratzen nituen.

**Zein zenuen umetan jatekorik gustukoena?**

Babak eta oilasko errea.

**Zertara jolasten zenuten?**

Ufaaa, zertara ez! Ezkutaketara, zapitxora, txapetara, tabetara, sokasaltora, gomasal-





tora... Eta den-dena kalean, bi ordutik behin pasatzen ziren kotxeak eta lasai ibiltzen ginen. Amak leihotik “etxeraaaa” esaten zuen arte.

#### **Nola gogoratzen duzu orduko Eibar?**

Zoragarria zen, oso lasaia... Pentsa, Urki auzoan bizi nintzen eta patinetan jaisten nintzen honaino, San Andres eskolaraino.

#### **Zeren falta somatzen duzu orduko Eibartik? Eta zerena ez?**

Orduko lasaitasuna ekarriko nuke. Aldiz, sirimiri ez. Udazken, negu eta udaberri osoa ematen genuen katuska, gabardina eta aterkiarekin.

#### **Zer da Eibartik gehien gustatzen zaizuna?**

Jendearen eskuzabaltasuna. Beti gaude prest gaizki dagoenari laguntzeko. Eta hori ez da leku guztietan gertatzen.

#### **Eta gutxien?**

Eraikitze modua, zenbat eraikin, zenbat etxe...

#### **Nola ikusten duzu euskera Eibarren?**

Oso gutxi hitz egiten da, gaztetxoan artean batez ere. Zer egin erabilera bultzatzeko? Ba adi-

bidez dakitenak eta ez dakitenak elkartu, elkarrekin planak egin... Agian, nahasketa horretan, ez dakienari gogoia sartuko zaio ikasteko... Eta, jakina, dakitenek hitz egin beharko lukete.

#### **Zelan konpontzen zara teknologia berrieekin?**

Oso ondo, autodidakta naiz. Hori bai, hasieran ez nuen telefonorik nahi, urteak eman nituen telefonorik gabe.

#### **Zein da asmakizunik onena?**

Erropa-garbigailua inongo zalantzarik gabe.

#### **Genero-berdintasunean aurreratu dugu zerbait?**

Zeozero bai, pauso batzuk eman dira baina txikiak, ez da nahikoa eta bide luzea dugu egiteko. Borrokatzen jarraitu behar dugu, berdintasunaren alde, borrokatuko ez bagenu atzera egingo genuke-eta, lehengo sasoiatara.



# Ogi-pizzak

4 lagunentzat  
10 minutu

Mini-pizza hauek egiteko nik urdaiazpiko egosia, hirugiharra, frankfurt saltxitxak eta gazta erabili ditut, baita hainbat barazki ere: kalabazina, piper gorri eta berdea eta ahuntz-gazta. Baina zuek nahi dituzuen osagaiak erabili ditzakezue, zuen gustokoenak, gozoak egongo dira seguru!

## OSAGIAK :

- Moldeko ogia
- Hirugiharra
- Urdaiazpiko egosia
- Gazta-xerrak eta gazta birrindua
- Saltxitxak
- Ahuntz-gazta
- Tomate frijitua
- Barazkiak...

## NOLA EGIN:

- 1.- Piztu labea 180 gradutan beroa emanez goian eta behean. Bitartean jarri itzazue ogi-xerrak labeko erretiluan. Lehenengo eta behin, busti ogiak tomateaz, gazta-xerra batez estali eta gainean jarri gainerako osagaiak: urdaiazpikoa, hirugiharra eta saltxitxak.
- 2.- Barazki-pizzentzat kalabazina xerra finetan moztu eta jarri tomatearen gainean, piperrak eta ahuntz-gaztarekin batera.
- 3.- Estali pizza guztiak gazta birrinduarekin. Sartu labean eta utzi bertan urre kolorea hartu arte 10 bat minutuz.
- 4.- Eta... gozatu!! Uuummmm



# Gaileta eta marrubi basotxoak

TI-TA



Masustekin ere egin dezakezue. Hiru osagai besterik ez: esne-gain harrotua, marrubiak edo masustak eta gailetak. Xehetu gailetak, eskuekin, edo bildu trapu batean eta arrabolaz zapaldu. Garbitu ondo marrubiak eta moztu. Utzi lau osorik. Jarri dena lau edalontzitan geruzak osatuz: gaileta, marrubia, esne-gaina. Berrero, gaileta, marrubiak eta esne-gaina. Azkenik, apaindu edalontzi bakoitza marrubi oso batekin alderantziz jarritz, puntatxoa gorantz.



## LABIRINTOA



## HIZKI-ZOPA

A	I	L	E	G	A	R	R	E	L
A	M	J	K	U	N	T	Z	G	A
G	E	A	K	I	K	F	A	D	U
B	U	I	Ñ	U	R	K	I	Z	U
A	A	S	F	A	I	P	Q	A	L
R	S	G	I	P	U	R	U	A	U
R	J	S	D	F	G	J	L	L	P
E	A	R	D	A	N	T	Z	A	O
N	U	R	K	I	I	O	L	O	K
A	S	A	U	T	X	I	T	A	B

Topatu Eibarko auzoak:

UNTZAGA - AMAÑA - URKI - LEGARRE - IPURUA - ARDANTZA - BARRENA - SAUTXI






# SUDOKUA



# 7 DESBERDINTASUNAK





# IO EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **azaroak 7** baino lehen  
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel. ....



## AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa NAYRA, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko motxila zuretako! ZORIONAK!

**Lolaren bizikleta** 6 urtetik aurrera

Gau batean, ekaitza kanpoan, hautsi egin da Lolaren bizikleta. Baina Lola iaioa eta irudimen handikoa da, eta egun gutxiren buruan konpondu du bizikleta. Ez zaio txirrina baino falta. Itsasoko ur azpian, bizikletak txirrina jo du, Lolari deika. Biak batera, amarekin mintzatzeko modua aurkitu dute: ez dute osaba itzultzerik nahi.

**Desberdinen kluba** 8 urtetik aurrera

Martin, Edwige, Erwan eta Fredek bazekiten egunen batean gertatuko zela? Eta hara non lauren arteko adeitsuena jipoitu duten kalean. Nork? Zergatik? Bidegabekeria horrek barru-barrutik ukitu ditu eta, amorrak bultzatuta, neurriak hartu dituzte, neurri benetan bitxiak.

**Dentista deabruaren istorio sinesgaitza** 10 urtetik aurrera

Iluntasuna iritsi zen herrira. Gauza arraroak ari ziren gertatzen gau ilunean. Hurrek jarriko zuten hortz bat burkoaren azpian sagutxoarentzat, baina goizean esnatuko ziren eta zer aurkituko eta... bare akabatu bat, armiarma bat bizirik, ehunka ipurtsarde arrastaka burkoaren azpian. Deabrua lanean ari zen. Baina nor edo zer zegoen gauza horien atzean?

**BITXIKERIAK**

*Haurtxo batek ezin du gatzaren zaporea bereizi 4 urte bete arte.*



*Gizakiok urtean 400 aldiz doministiku egiten dugu, eta orduko 160km-ko abiadurara iristen dira.*

*Trikuek hori kolorez ikusten dute dena.*







# GENIO TXARREKO GIZONA

Bazen behin genio txarreko gizon bat. Gizonaren etxe ondoan belardi bat zegoen, eta eguerdian umeak eskolatik irtetzean belardira joaten ziren futboleko jolastera.

Umeak 14:30ean irteten ziren eskolatik, eta futbolera jolastera joaten ziren. Umeak deitzen ziren

Malen, Nora, Ander, Jon eta Joan. Egun batean futboleko jolasten, penaltia seinalatu zuten eta Malen baloia jaurtitzera zihoanean, trrrrrrrrrrrrrrr! Bingo! Leihoan jo zuen. Gizona ohartu zenean korrika irten zen etxetik eta oihuka hasi zen:

- Baina, baina, zer egin duzue! Zuek ordainduko didazue leihoa!

Malenek ez ziola leihoa ordainduko esan zion. Orduan gizonak kontrola galdu zuen, oihuka hasi zen ogro bat bezala. Umeak korrika hasi ziren belardi guztitik. Gizona apur bat lasaitu zenean umeak ere lasaitu egin ziren. Bakoitza bere etxera joan zenean beraien aita eta ama enteratu egin ziren gertatu zen guztiaz. Orduan umeek esan zieten:

- Nola enteratu zarete?

- Egunkarian agertu zarete! -gurasoek.

Umeak zigortuta egon ziren hiru aste. Eskolan umeen artean hitz egin zuten gizonari barkamena eskatzeko, baina beldur ziren ez ote zen gizona berriro oihuka hasiko. Gizonari barkamena eskatzera joan zirenean ez zien oihurik egin. Oso arraroa iruditu zitzaaien oihurik ez egitea eta gizonari galdetu zioten. Esan zien berak ere barkamena eskatu behar zuela oihuka egiteagatik. Handik aurrera gizona eta umeak zoriontsu bizi izan ziren.



NORA JAINAGA

# ZU BAI MARGOLARI!

